

# TRATU ONAREN TXERTOIA

## HELBURUAK

- Indarkeria arazo sozial bat bezala identifikatzea, prebenitu ahal izango duguna bakean, tratu onean eta indarkeriarik ezan oinarritutako ingurune bat eraikitzeko konpromisoa hartuta.
- Gure eguneroko bizitzako arazoak eta gatazkak bakean ebazteko moduak ezagutzea, eta bizikidetzaren ereduak ezartzea arazo eta gatazka horiek prebenitu ahal izateko, helburu hori lortzeko haurren partaidetza tresna gisa erabilita.
- Haur guztiek bakean eta edozein indarkeria modutik babestuta bizitzeko duten eskubidearekin konpromisoa hartzea.

## BEHARREZKO MATERIALAK

- Txertaketa-kartila, manifestua eta tiritak. Hemen deskargatu eta pertsonalizatu daitezke: [www.unicef.es/eus/educa/tratuona](http://www.unicef.es/eus/educa/tratuona)
- Paper jarraitu handi bat edo kartoi mehe bat.
- Idazteko eta koloreztatze materiala.
- Kezkatzen gaituzten indarkeria moduekin identifikatu ditzakegun irudiak, ebakinak eta elementuak.
- Murala sortzeko kola-barra.
- Eranskinetako fitxaren kopiai parte-hartzaile edo talde bakoitzarentzat.

## LAGUNTZA-MATERIALA

- "Eskolan salbu. Babes-inguruneetan ikasten", eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzako jardueren eta baliabideen gida edozein indarkeria modutik aske egoteko haurrek duten eskubideari buruz, hemen eskuragarri: [www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskolan-salbu-ikasturteko-gida](http://www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskolan-salbu-ikasturteko-gida)

Indarkeriak, birusek bezala, biktimak besterik ez ditu sorrarazten: guztiok galtzen dugu eztanda egiten duenean. Gainera, epidemiekin gertatzen den bezala, hobe da prebenitzea sendatzea baino. Ikasturte honetan eskola-mobilizazio bat proposatzen dizuegu. Hala, guztion artean landuko dugu bakearen eta tratu onaren txerto bat, azaroaren 20an, Haurren Egunean, gure ingurune osoa babesten saiatzeko. Adi, ordea, oso txerto berezia baita: txertoa, hartu baino, pentsatu egiten da. Ezagutu ezazu!

## Jarduera prestatzea

Jarduera honen lehenengo zatian, guran eragina duen indarkeriari buruzko hausnarketa bat egingo dugu metafora baten bitartez: indarkeria-birusa. Horrek aukera emango digu analogiak aztertzeko, gure jarrerari eta portaerari dagokienez, prebentzioaren ikuspegia emango diguna indarkeriaren aurrean. Indarkeriarekin ditugun arazoak indarkeria-birusaren itxurarekin definitu ondoren, osagaiak landuko ditugu (errespetua, adiskidetasuna, enpatia, babesa...) gure ingurunean indarkeriari azkena emateko. Hausnarketa horren emaitza gisa txerto bat lortuko dugu; txertoari izena jarriko diogu eta konpromiso eta eskari batzuk adostuko ditugu indarkeria ezaren eta tratu onaren inguruan.

Jardueraren bigarren zatian hasiera emateko deskargatu eta inprimatu egingo dugu PDFan taldearen txertaketa-kartila (txertoaren "fabrikazioa"), gure birusaren izenarekin, gure txertoarekin, eta gure konpromiso eta eskaerekin pertsonalizatua. Kartilak manifestu bat biltzen du, talde osoak sinatzeko, eta baita gure txertaketa-kanpainan txertoa ipiniko diegun pertsona guztiei jarriko dizkiegun tiritak ere.

## Bakearen eta tratu onaren aldeko txertaketa-kanpaina azaroaren 20an, Haurren Egunean, egin daiteke.

Jarduera hau gure taldearen adinera egokitu daiteke: Haur Hezkuntzan, trebetasun eta portaera jakin batzuetan oinarritu gaitzake, emozioak ezagutzeko eta trebetasun sozialak garatzeko lagungarriak diren horietan (agurtzea, gauzak "mesedez" eskatzea eta eskerrak ematea, beste batzuk kontsolatzea...). Hala, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aurrera egin ahala, hausnarketak egin ditzakegu hainbat gairi buruz (*bullyinga*, estereotipoak, diskriminazioa, talde-pentsamendua edo enpatiarik eza) eta irtenbideak proposatu ditzakegu gogoetari, asertibitateari eta gatazken ebazpenari buruz.

## Indarkeria-birusa:

Asmatutako pertsonaia baina errealtatean inspiratua. Itsusia eta beldurgarria da bere itxura, gure kezkez, beldurrez eta frustrazioez osatuta baitago. Inguratzeko gaituen eta konpondu nahi dugun indarkeriaren isla bat da.


## Tratu ona:

Tratu ona existitzeko ez da nahikoa tratu txarrik ez egotea. Tratu onak ahalegin aktiboa egiteko eskatzen digu, beste pertsona batzuk errespetatzeko, haiekin atseginak izateko eta behar dutenean haiei laguntzen saiatzeko.

## 1. PAUSOA

### Irudikatu ezazue zuen indarkeria-birusa


Zuen indarkeria-birusak gainerako birusen antza izan dezan nahi baduzue, ondoko forma hauen artean aukeratu dezakezue; dena den, zuen irudimena aska dezakezue baita ere, zuen indarkeria-birusak ahalik eta ondoen islatu ditzan zuen ingurune eta munduko indarkeriak eragiten dizkizuen kezkek.



## 2. PAUSOA

### Isolatu birusa

"Isolatu" zuen indarkeria-birusa mural batean, erdi-erdian. Mural hori izango da txertoa lantzeko zuen Petri-ren kaxa, bertan osagaiak gehitzeko. Gainera, birusak mikroskopikoak badira ere, garrantzizkoa da zuena handia eta beldurgarria izatea. Ondo ikusi behar da muralaren erdian.



Indarkeria ondo islatuta gera dadin gure indarkeria-birusean, birusekin loturirik ez duten elementuak eta osagarriak erabil ditzakegu itxura beldurgarriagoa har dezan. Erabil itzazue aldizkarietako ebakinak eta irudiak edo hitzak, birusari nortasuna eta itxura emateko lagungarriak izango zaizkizuenak: garrantzizkoa da indarkeria ondo ezagutzea, geldiarazi ahal izateko.



### 3. PAUSOA

#### Jarri iezaiozue izen bat

Ez Xabi, ez Miren, ezta Iñigo ere: beldurgarria izan behar du izenak. Pertsona jakin bat edo talde jakin bat errazago eraso dezake indarkeriavirus batek. Bada bere iritzia adieraztea lortzen ez duen jenderik? *Isil sekularis* epidemiaren bat egon daiteke beharbada. Bada baztertua sentitzen den talderik? Baliteke *Diskrimina baztergarris* agerraldi bat izatea. Sare sozialak leku desatsegin bilakatu dira? *Digit abusagarris* baten erasoagatik izan daiteke. Ez da beharrezkoa birusen izendapen zientifikoari jarraitzea: desagertzea nahi duzuen hori ondoen deskribatuko duten hitzak aurkitzea da kontua.

### 4. PAUSOA

#### Diseinatu itzazue txertoaren osagaiak

Bakarka edo taldeetan, fitxak prestatzen joango gara, zuen indarkeria-  
birusari aurka egiteko behar diren osagaiak deskribatuko dituztenak. Deskribatu fitxa bakoitzean osagaia (adibidez: "errespetua", "adiskidetasuna" edo "entzutea"), bere printzipio aktiboak, posologia eta erabiltzeko gomendioak. Erantsi fitxa guztiak muralean, indarkeria-birusa inguratuz ahulduta amaitu dezan.

### 5. PAUSOA


#### Badugu txertoa!

Muralean dago orain txertoa, fabrikatzeko eta banatzeko prest. Orain jarriko diozue izena eta finkatuko dituzue denon artean indarkeriarik ezaren 5 konpromiso taldearentzat eta 3 eskakizun haurren eskubideak babesteko erantzukizuna dutenei (ikastetxeko zuzendaritza, udala, hedabideak, gobernuak... izan daiteke).

### 6. PAUSOA

#### Indarkeriarik ezaren eta tratu onaren aldeko zuen manifestua

Deskargatu hemen [www.unicef.es/eus/educa/tratuona](http://www.unicef.es/eus/educa/tratuona) zuen manifestu pertsonalizatua, adostu izan dituzuen konpromisoak eta eskaerak adieraziz, eta sinatu ezazue denek, baliozkoa izan dadin. Ikasgelan ikusteko moduan dagoen leku batean ipini dezazue manifestua, ikasturte osoan zehar gogoan izateko eta betetzeko. Gainera, eskaerak egin dizkiezuen pertsoneri edo instituzioei aurkeztu ahal izango diezue, indarkeriaren aurrean haur guztiak babestuta egoteko eskubidea defendatzeko modu bat baita.



## Gomendio batzuk

Zuen kanpaina sare sozialetan hedatzen baduzue, erabili #EndViolence hashtaga ahalik eta jende gehienarengana iritsi dadin.

- Egin itzazue argazkiak, zuen muralarena, txertoaren osagaiena, manifestuarena eta tiritena, horrela, guztiak ikus dezaten zein ondo geratu den zuen txertaketa-kanpaina eta jakin ditzaten zuen helburuak.
- Txertaketa-egunean jendearen argazkiak egiten badituzue, ziurtatu baimena ematen dizuetela eurei argazkiak egiteko.
- Antolatu erreportari-talde bat, egun horren jarraipena egin dezaten eta post bat idatzi dezaten zuen blogean edo [www.unicef.es/educa/blog](http://www.unicef.es/educa/blog) blogerako.
- Tokiko hedabideak ekitaldira gonbidatu nahi badituzue, aurretik bidali haiei deialdi bat eta prentsa-ohar bat.
- Zuen komunikazioetan, gogoan izan eskerrak eman behar dizkiezuela txertaketa-kanpaina egiten lagundu dizuetenei.

**Ezagutu itzazu ideia gehiago hemen: [www.unicef.es/eus/educa/blog/zure-jarduera-partekatu](http://www.unicef.es/eus/educa/blog/zure-jarduera-partekatu)**

## 7. PAUSOA

### Txertaketa-kanpaina hastera goaz!

Azaroaren 20a, Haurren Eguna, aukerako eguna da bakearen eta tratu onaren aldeko txertoa ipintzeko! Webgunetik deskargatu duzuen manifestuarekin batera dituzue tiritak pertsonalizatuak, zuen txertoaren izenarekin, eta apaindu egin ditzakezue eta zuen kanpainan txertatuko dituzuen pertsona guztien artean banatu. Gogoan izan hau ez dela hartzen den txerto bat, pentsatzen dena baikik: kanpainan, garrantzikoena da jasotzen dutenei azaltzea zein den gure indarkeria-birusa eta zein bake-formula diseinatu dugun birus hori desagerrarazteko.

## 8. PAUSOA

### Mundu guztiak ezagutu dezala zuen txertoa!

Eman ezagutzera zuen txertoa hezkuntza-komunitate osoari: ikastetxeko irratian, zuen blogean eta sare sozialetan ezagutzera eman dezakezue, edo [www.unicef.es/educa/blog](http://www.unicef.es/educa/blog) blogean argitaratu. Eta zuen udalerriko hedabideekin ere jar zaitezke harremanetan!



# #endviolence

## BAKEAREN ALDEKO TXERTORAKO NIRE OSAGAIA

Osagaiaren izena:

Formula/Printzipio aktiboak:

Oharrak:

Posologia (maiztasuna eta erabilera):

Gomendioak:

Agindua eman duena:

Sinadura:

